

# *iraileko paperak*



---

## Aberriaren poesia / poesiaren aberria

---

### Egitaraua:

### **IRAILAREN 26an, OSTIRALA**

**20:30ean** ‘*Heriotzak Eduardo du izena*’, Formol taldea. © IKUSGARRI zinemana.

---

### **IRAILAREN 27an, LARUNBATA**

- 11:00etan** *Hitzaldia*: Hedoi Etxarte (‘Aberri galduaren bila’). © Rekreatiba elkartean.
- 12:15etan** *Omenaldia*: Eusebio Erkiagaren omenezko plaka jartzea. © Eliz Atean.
- 13:00etan** *Irakurraldia*: Txomin Hegi, Gotzon Barandiaran, Ane Labaka.  
Musikariak: Nabil eta Toki. © San Juan Talakon.
- 18:00etan** *Ibilaldi poetikoa*: Leire Vargas, Iker Aranberri, Raquel Pardo, Edu Zelaieta eta  
Luzien Etxezaharreta. Musikaria: Esther Gabiola. © Abaroa parketik hasita Mareaerrotara.
- 19:30ean** *Errezitaldi musikatua: ‘Rifqa: honengatik egiten dugu dantza’*.  
Eider Beobide, Xalba Ramirez eta Peru Galbete. © Mareaerrotan.
- 

### **IRAILAREN 28an, IGANDEA**

- 11:00etan** *Elkarritzeta*: Chus Pato eta Miriam Reyes (Gidaria: Danele Sarriugarte).  
© Rekreatiba elkartean.
- 12:30ean** *Ikuskizun poetikoa: ‘Sonora’*, Chus Pato eta Miriam Reyes. © Rekreatiba elkartean.

Mila esker *IRALEKOAK* poesia-jaialdiaren 3. edizioa Lekeitio modurik ederrenea antolatzen lagundi diguzuen guztioi: Lekeitioko Udala, Kitto merkatarien elkartea, Rekreatiba elkartea eta parte hartu duten sortzaileak.

Mila esker, baita ere, aldizkarirako itzulpenak egin dituen Danele Sarriugarteri.

# Irailean, *Irailekoak*

EUSKALTZAINDIAK, literaturari dion atxikimendua adierazte aldera, poesiari eskainitako asteburu berri bat antolatu du aurten. Lehen edizioa Lekeitio (Bizkaia) izan zen, 2023an, eta bigarrena Itsasun (Lapurdi), 2024an. Aurten, hirugarren ahalegina izanen da eta Lekeitiora itzuli gara berriz.

Luzerako egitasmoa izatea nahi genuke, Euskal Herri osoarentzat, poesiak bere toki-denborak izan ditzan udazkenaren hasieran gure artean, bestelako ekintzekiko lehian sartu gabe, orotariko literatura jardunaldien egutegia osatuz baizik.

**IRALEKOAK**, irailean. Espero dugu saio hau ohituraزو hitzordu bihurtzea literaturazaleentzat, topaldi atsegin eta interesgarria. Gonbit honek ez dauka mugaegunik.

## Zertarako IRAILEKOAK?

Azken urteotan, euskal poesiak hartu dituen bideei buruz hausnartzeko; poeten lana zehatzago ezagutzen laguntzeko; belaunaldi zahar eta gazteagoen ahotsak eta adierazkerak eratzeko; harremanak zabaldu eta solasgune berriak sortzeko.

## Eta zergatik poesia?

Poesiak hitzen edertasuna agerian uzten duelako; galderak egiten dizkigulako, eta erantzun ere bai... Edo bideak zabaltzen dituelako gure ni sakonaren eta munduaren artean; geure burua ulertzen laguntzen digulako; geure burua nahasteko balio duelako; memoria jasotzen duelako; nor garen gogorarazten digulako; gaitzak ahazten laguntzen digulako; beldurra menderatzen duelako; kontzientziak astintzen dituelako; sentsazioak pizten

dituelako; egia bakar bat ez dagoela erakusten digulako; errealityaren konplexutasuna aurkezten digulako; mugarriak ipintzen dizkiolako hutsera jotzen ari den artaldeari; azalkeriarri kontra egiten diolako; ezer ez delako eta, aldi berean, dena biltzen duelako; eskatzen ez duelako eta bai ematen; gogoko dugulako... Eta batzuetan gorroto; poesia... poesia delako.

Margolanak eta marrazkiak: Sonia Rueda.



## Hedoi Etxarte

Iruñea, 1986. Hiru poema libururen egilea da: *Suzko lilia* (Susa 2008), *Sinplistik* (Susa 2012) eta *Sortaldekoak* (Susa 2021; katalanez ere argitaratu zuten: *Els orientals*, Manifest 2023). *Ihes ederra* (Alberdania 2009) eleberri grafikoa argitaratu zuen Alain Urrutiarekin batera (gazteleraez eta katalanez ere argitaratu zuten). *Wagner auziaz* (Jakin 2014) saiakerako testuak hautatu eta itzuli zituen, Wangermée, Clément, Zizek eta Badiouren testuekin. 2014tik *Berria* egunkarian zutabea idazten du larunbatetan. Iruñeko Katakrak-eko langilea da sorreratik, liburu-dendan eta argitaletxean bereziki.

# Aberri galduaren bila

Iruñeko Santa Engrazian,  
2025eko uztailaren 14an,  
Bastillaren hartzearren urteurrenean.

Dagoen gai konplexuenetako bat da aberriarena. Horregatik, Miren Agur Meabek aberriaz hitz egitera gonbidatu ninduenean eta jakin nuenean markoa hau izango zela, pentsatu nuen: Zer da aberria niretzat? Zein da nire aberria? Badut aberririk? Joxe Azurmendik Orixerekin hausnartu bezala, zer dugu aberriaren alde? Eta zer dugu aberriarekin kontra?

Solasaldiak gai handiak konbokatzen dituenean, paralisi moduko batean sartzen naiz. Kasu honetan, lau poloren arteko gatazka esplizitu bat planteatzen zaidalako: Euskal Herria da gure aberria? Euskal Herria bada, baina baita Espainia ere? Eta Frantzia, ez al da ere gure aberria? Klasea aberri gisa bizi daiteke? Existitzen al da desjabetuen aberria ala hori amarru bat besterik ez ote da?

Baina aberririk ez dugula ere erantzun genezake, ekoizpen moldeen jabe ez garenok ez garela munduaren jabe ez bada gure beharrarena, ez bada gure lanarena. Eta, beraz, ekar nitzake hona aberriaz Vladimir Ilitx Ulianov *Leninek* esan zituenak, ala

Lenini erantzunez Rosa Luxemburgek idatzi zituenak. Ekar nitzake hona Azurmendik Ernest Renani buruz ikertu zituenak ala Gabriel Aresti saiogileak pentsatu zituenak.

Baina gaurkoa poesia-jaialdi baten irekiera ekitaldia da eta, beraz, oso ariketa tautologikoa egitera etorri naiz. Eta baliatu dut gehien maite dudan ariketetako bat egiteko: Zer diote etxeko egongelako eta logelako liburuek munduari buruz? Eta, kasu jakin honetan, zer diote gure Iruñeko Saenz de Oiza kaleko liburuek aberriari buruz?

Liburuetara iritsi aurretik, ordea, Che Guevarak 1960an Nazio Batuen Erakundean oihukatu zuen Fidel Castroren lema etorri zait gogora: «Esa proclama es “¡Patria o muerte!”».

Sintesi handiko ariketa da esloganak idaztea eta, beraz, zer esan nahi dute Guevarak eta Castrok? Bizitza eman behar zaiola aberriari? Aberria heriotza dela? Aberria bizitza dela? Den-dena merezi duela?



Aberri bera da Guevara eta Bad Bunnyrena? Testu hau osatzen ari naizen egunetan, Puerto Ricoko artistak esan duenez, «aberria bihotzean eraman behar duzu». Puerto Ricoko hedabideetan, laudorio gisa esan dute Bad Bunnyren azken ikuskizuna eta diskoa nazionalistak direla. Gaia arantzatsua da; gure amatxi Pilarrek, 1930etako Arrasatez hitz egitean diferentzia egiten zuen nazionalisten eta nazionalen artean: nazionalistak abertzaleak ziren; nazionalak, ordea, karlistak, eskuindarrak eta falangistak.

Baina Che Guevarak New Yorkeko tribunatik esan zuenak oihartzun bat ekarri badit, hori izan da Lauaxetaren poema ezagunenarena:

### MENDIGOXALIARENA

#### I

Mendi eze, ikurrin eder,  
azke nai zattut axian.  
Amar gasteren lerdena  
makilla luzez bidian!

Mendi-bitxidor berdiok,  
arin or duaz kantari:  
«Dana emon biar yako  
matte dan azkatasunari».

Eta ixil dago arratsa  
Euzkadi'ko lur-ganian.  
Amar gasteren lerdena  
makilla luzez bidian!

#### II

Gastedi orren didarra  
bai-dala didar zolija!  
Aberri baten samiñez  
urduri dabil errija.

Azkatasun-goxalderuntz  
sugarra dira basuak.  
Sugarra basuak eta  
zidar argija itxasuak.

Or duan ozte-aldrea  
aberri-minez kantari:  
«Dana emon biar yako  
matte dan azkatasunari».

#### III

Gaste orreik goruntz duaz  
abesti eta ikurriñez.  
Lañuan baño tiro otsak:  
bedartza dager odolez

Ikaraz duaz usuak,  
mendija dago ixillean,  
Amar gasteren lerdena  
bixitza-barik lurrean!

Eta illuntziko bakian  
norbattek darrai kantari:  
«Dana emon biar yako  
matte dan azkatasunari».

Mendigoizaleen aberria askatasuna da. Lauaxetaren aberria Euzkadi da. Horregatik, fusilatu zuten faxistek Lauaxetaren omenezko bustoaren eskultura tokiz aldatu zutenean, Gasteizko Lakua auzoko Euskaltzaindia plazatik Zabalguneko karmeldarren komentu parera; nire ustez, akats nabarmena egin zuten. Euskaltzaindia plazan zegoenean Sansomenditik gertu zegoen. Sansomendi da Gasteizko ijito gehien bizi diren auzoa, eta Federico García Lorca da Gasteizko ijitoen aberriaren poeta. Eta gainera, Sansomendin dago Guardia Zibilaren kaserna erraldoi bat.

### ESPAINIako GUARDIA ZIBILAREN

#### ERROMANTZEA

*Juan Guerrerori, poesiaren kontsul nagusiari*

Beltzak dira zaldiak.  
Ferrak beltzak dira.  
Kapen gainean tinta eta argizari  
mantxek distiratzen dute.  
Burezurrak berunezkoak dituzte,  
horregatik ez dute negar egiten.  
Txarolezko arimarekin  
datoz errepidetik.  
Konkortuta eta gauez,  
handik animatzen eta agintzen  
dituzte goma ilunezko isiltasunak  
eta harea finezko beldurrak.  
Pasatzen dira, nahi dutenero,  
eta buruan ezkutatzen dute  
pistola zehaztugabeen  
astronomia lauso bat.

O ijitoen hiri!  
Izkinetan banderak.  
Ilargia eta kuiak  
gingak kontserban.  
O ijitoen hiri!  
Nor ez da zutaz oroitzen ikusi ostean?  
Minaren eta musketaren hiri,  
kanelazko dorrekin.

Gaua heltzen zenean,  
gauaren gau gauena,  
ijitoek euren suteetan  
eguzkiak eta geziak forjatzen zituzten.  
Zaldi zairoti bat  
ate guztietara deika.  
Beirazko oilarrek abesten zuten  
Jerez de la Fronteran.  
Zoriaren izkina  
biluzten du haizeak,  
gauean zilarrezko gauean,  
gauaren gau gauena.

Birjinak eta San Josek  
kriskitinak galdu zitzuten,  
eta ijitoak bilatzen dituzte  
aurkituko dituztelakoan.  
Birjina jantzita dator  
alkate jantzi batekin,  
txokolate paperezkoa  
almendrazko lepokoekin.  
San Josek besoak mugitzen ditu  
zetzeko kapa baten azpian.  
Pedro Domecq doa atzean  
Persiako hiru sultanekin.  
Ilargi erdiak amets egiten zuen  
zikoinaren estasiarekin.  
Estandarteeak eta argointziek  
inbaditzen dituzte teilitu lauak.  
Aldakarik gabeko dantzariek  
ispiluetatik egiten dute intziri.  
Ura eta itzala, itzala eta ura  
Jerez de la Fronteran.



O ijitoen hiri!  
Izkinetan banderak.  
Itzali zure argi berdeak  
Guardia Zibila datorrela.  
O ijitoen hiri!  
Nork ez zaitu gogoratuko ikusi ostean?  
Utz ezazue itsasotik urrun,  
artesientzako orrazirik gabe.

Binaka egiten dute aurrera  
festaren hirira.  
Betibizien zurrumurru batek  
kartutxo zorroak inbaditzen ditu.  
Binaka egiten dute aurrera.  
Oihalezko nokturno bikoitza.  
Ezproien erakusleihoa  
iruditzen zaie zerua.

Hiriak, beldurrik gabekoak,  
bere atea biderkatzen zituen.  
Berrogei guardia zibil  
harrapakarien moduan sartu dira.  
Erlojuak gelditu ziren,  
eta botiletako koñaka  
azaroz mozorrotu zen  
susmorik ez pizteko.  
Oihu luzeen hegaldi bat  
altxatu zen haiize orratzetan.  
Sableek kaskoek harrapatutako  
brisa mozten dute.  
Ilunantzaren kaleetan  
ijito zaharrak ihesi doaz  
lotan dauden zaldiekin  
eta txanponez betetako ontzi luzeekin.  
Kale aldapatsuetatik  
kapa siniestroak igotzen dira,  
atzean utziz guraizezko  
zurrubilo iheskorrak.

Betleemgo portalean  
ijitoak bildu dira.  
Zauriz jositako San Josek  
hildako dontzeila bat janzen du.  
Fusil zorrotz egoskorrek  
gau osoan entzuten dira.  
Birjinak haurrak sendatzen ditu  
izarren adurra kein.  
Baina Guardia Zibilak  
suteak pizten egiten du aurrera,  
non irudimena erretzen den  
gazterik eta biluzik.  
Rosa de los Camborois-ek  
intziri egiten du bere atarian,  
bi bularrak moztuta  
erretilu batean jarrita.  
Eta beste neskatxa batzuek  
korri egiten zuten euren txirikordek segika,  
bolbora beltzezko arrosek  
leher egiten duten aire batean.  
Teilatu guztiak  
lurraren ildoak zirenean,  
egunsentiak sorbaldak kulunkatu zituen  
harrizko profil luze batean.

O ijitoen hiri!  
Guardia Zibila aldentzen da  
isiltasunezko tunel batetik  
sugarrek inguratzen zaituzten bitartean.

O ijitoen hiri!  
Nork ez zaitu gogoratuko ikusi ostean?  
Bila zaitzatela nire kopetan.  
Ilargiaren eta harearen joko bat.

Guardia Zibila da Espainiako aberriaren eraikitzale eta defendatzailea eta, aldi berean, Guardia Zibila da Espainiaren esentzia nazional behinena eman dion herria, aberririk eta lurrik gabeko ijitoen aberria, XIX. mendetik sistematikoki suntsitu nahi izan duen polizia. Aberria aberriaren beraren kontra ari da? Espainiako polizia Espainiari esentzia, izaera, musika, dantza, zezenketak, flamenkoa ematen dieten kontra?



Baina, aldi berean, ba ote da poliziarik gabeko aberririk? Baldin badago, hori da bereziki niri interesatzen zaidan aberria. Bankerorik ez daukana, Arrestiren aberria alegia:

Nik ere  
badut  
nire egia,  
eta bankero jaunarenak  
bezainbat  
edo baino gehiago  
balio du.

Baina bankeroen egiak jende xehearenak bezainbat balio duen Arrestiren aberria Euskal Herria ote da? Motor Ibérican zera dio:

### MOTOR IBÉRICA

Çu,  
Naffarrea,  
Iruinea,  
Falba gaitzac  
empara gaitzac  
bai,  
falba eçak  
empara eçak  
Euzcadi,  
Efpainia,  
Europa.  
Çeu çara capable.  
Salba itzac  
ene hiru  
aberriac  
(hauc, bai, dira gauça berriac),  
falba eçac  
guiçona  
(guiçonac ezpaitu appellationeric)  
guiçona hutfic:  
İçorra bedi Hemingway:  
Zikira bitez cecen  
eta  
americano guztiac,  
afqui da FIESTA.  
Bizcaian  
afko suffritu dugu,  
guiphutzec gutiago,  
baina afqui sufritu dute:  
Eçagutu ditudanac:  
Heroice directac:  
Chavi  
(dohacabe guztion cafia),  
Inaqui Sarafqueta  
(ceimbat maitatu nuen!)  
Chomin,  
Cho,  
Josu Bilbao,  
(eufcaraz Bilbao da, ez Bilbo)  
Eguileor  
(hau da neronen ahaidea),  
eta abar,  
abar,  
abarea.  
Indirectac:  
Rikardo, Pepe, Adela,  
Maite...

maite çaituztet guztioc,  
 Eta gainera...  
 Ezagutu ez ez ez eztitudanac:  
 1.  
 Çu,  
 Naffarropa,  
 Iruinea,  
 indaçu iatera,  
 iguçu iatera,  
 bicitzena:  
 Çure bandera gorriac  
 bici behar  
 gaitu...



Beraz, Arrestiren hiru aberriak dira Euskadi, Espainia, Europa. Eta haien bandera gorriak bizi behar gaitu. 1973ko Arrestiren bandera gorria Iruñerriko urte haietako greba nabarmenean atera zuena da, 1927ko abuztuaren hondarrean Edna St. Vincent Millayk Sacco eta Vanzetti langile eta migratzaileen heriotza zigorraren aurka idatzi zuenean aldame-nean zuen berdina:

## JUSTIZIA UKATUA MASSACHUSETTSEN

Utz ditzagun atzean, beraz, gure lorategiak eta goazen etxera eta eser gaitezten egongelan, zein lore hazi beharko litzateke hodei honen azpian? Lirioa edo artoa? Hodei honen azpian garratza da hazi ugalkor honentzako lur hotza, belar on eta txarrak sustatu ditugu, gainean desfilatu dugu baina ez gara konkistatzeko gai; gure labanen ahoak biratu ditugu eta gure aitzurrak zurtoinen kontra daude.

Utz iezaguzue etxera joaten eta egongelan esertzen. Gure egunean ez du hodeiak alde egingo eta eguzkia ez da lehen bezala altxatuko gure gainean karitatez badia distiratsutik kanpo, eta haize epelak putz egingo du itsasotik artoaren hostoak mugituz soinu baketsuarekin.

Atsekabetuta, atsekabetuta dago mozketak hutsik utzi duen bela urdinaren gunea. Eta petaloak lurrera erori dira zuhaitza fruiturik gabe utziz. Ez dugu berriro sentituko eguzkia: bizkar makurtuak berotzen eta belar txar lehorak zuztarretik kentzen zituena. Iluntasunean hilko gara eta european lurperatuko gaituzte.

Heriotza bikainetik oinordetzan hartu dugu haziarentzako ildoko gozoa eta belar txar ahula, begira, orain, barea eta arpilatze lizuna. Gaizkiak suntsitzen ditu lirioa eta artoa, haien gainbeheraren lekuko izan gara.

Utz izaguzue hemen esertzen, geldi egoten, hementxe, egongelan hil arte. Ibilian dator heriotzaren pausoa, zutitu da eta badoa. Gure seme-alaben seme-alabei atari ederra uzten die, eta zumarra, eta lur hondatu bat aitzur hautsi batekin lantzeko.

Aberriaren eraikuntzako elementu zentral bat hildakoen artetik hautatutako batzuekin egiten den kontakizuna da. Hildako horiei buruz zera idatzi zuen Karl Marxek *Luis Bonaparteren brumairearen hemezortzian*:

Gizakiek beren historia egiten dute, baina ez nahi bezala, arbitrarioki, berek aukeratutako zirkunstantzietan, baizik eta lehenik ere badauden zirkunstantzietan. Hildako belaunaldien tradizioa mamu bat bezain astuna da bizirik daudenen garunean. Eta, itxuraz, egoera eta burua aldatzen ari direnean ere ordura arte existitzen ez zena lortzeko -krisi iraultzaileko garaietan, hain justu, iraganeko espirituei dei egiten diete haiez baliatzeko, haien izenak, borroka-esloganak eta arropak hartu, eta jantzi beneragarri eta hizkuntza ulergaitz haien baliaturik historia unibertsalaren eszenan aberria antzezteko.

Bistan da, aberri batzuentzat, ala, zehatzago esanda, aberri batzuetako gehiengoentzat, aberria askatzeak mamua askatzea esan nahi duela. Baina nork du mamuaren itxaropena eta nork izua? Mordechaj Gebirtig Krakoviako XIX. mende amaierako eta XX.aren hasierako zurgina izan zen. Autodidakta zen eta txirularekin abestiak eta partiturak konposatzen zituen lagunentzat. Lehenengo Mundu Gerrara arte Poloniako Galitziako Alderdi Sozialdemokrata Judutarreko (ZPSko) kidea izan zen. Gero, alderdiak Judutar Langileen Banda izena hartu zuen. Yiddishez konposatu zituen haur kantuak, proletarioentzako eta sozialistentzako abestiarik. Egun argiz hil zuten naziek Krakoviako kale batean 1942an, eta harena da Europa ekialdean hain ezaguna den Langabeen martxa:

#### LANGABEEN MARTXA

Bat, bi, hiru, lau,  
lanik gabe martxan gu.  
Inor ez da erreminten  
soinuaz oroitzten lantegian,  
bizitzarik gabe,  
herdoiltzen diren bitartean.  
Eta gu aberatsak bezala  
paseatzera: lanik gabe.

Bat, bi, hiru, lau,  
lanik gabe martxan gu.  
Arropa barik, etxe barik,  
alokairurako aski ez  
eta jateko beharra duenak  
hogeiren artean banatu behar.  
Aberatsek ezin dute gehiago,  
ogia eta ura gainontzekoontzat.

Bat, bi, hiru, lau,  
lanik gabe martxan gu.  
Bizkarra zartatu zaigu  
gelditu gabe lanean.  
Soroan, etxean, lantegian,  
gutxiengoaren onurarako.  
Zeren truke, ordea?  
Gosea eta langabezia, ez besterik.

Bat, bi, hiru, lau,  
lanik gabe martxan gu.  
Pausoz pauso langabe  
geure abestia abestuz  
Justizia eta berdintasunezko  
gizarte berri baterantz  
langabeziarik gabeko  
herri aske baterantz.



“

Arestiren hiru aberriak dira  
Euskadi, Espainia, Europa.  
Eta haien bandera gorriak  
bizi behar gaitu

”

Aberriaren narratibako beste elementu zentraletako bat presoa da. Hari ere egin zion tokia Puxkinek, Katia Granoff-ek adierazi zuen bezala «zentsura imperialaren, prentsa erreakzionarioaren eta poliziaren jazarpenarengatik ere, haren askatasunaren aldeko pasioak eta dezenbristen ideiek erabat zipriztintzen dute bere obra, 1825eko abenduaren 14ko insurrekzioa baino lehenago eta horren ostean».

#### PRESOA

Zutik, nire kaiola hezearen barroteetatik gertu, arrano gazte bati begiratzen diot esparru ilun honetatik, zoritzarraren kidea da eta bere moko gosetiarekin hormaren ondoko formarrik gabeko bazkalekua birrindu du. Batzuetan gelditu egiten da, neure leihora begiratzen du; neure pentsamendua asmatzen du, deitzen didala dirudi, begiradarekin tentatzen nau eta bere garrasiek zeharkatzen naute, esango balit bezala: «zatoz, hegan egingo dugu!».


Askatasunaren txoria, anaia, hautsi dezagun kaiola! Geure aurrerabidea lortzeko unea da, haizearekin espazioa partekatzeko unea hodeien atzean mendiak zuritzen diren lekuau bezala, urrezko hondartzak urdintzen diren itsasoetan bezala.

Baina baditu Puxkinek, horregatik da errusiarrentzako idazle nazionala gaur egun ere, aberriari buruzko pieza ederrak:

Zeure aberriaren itsasertz urrunetan herrialde arrotza utzi zenuen; une goibel hartan, une ahaztezin hartan, hainbeste nuen negar egin. Esku izoztuekin, ulu artean, atxiki nahi zintudan eta ihesaren mina ez zedila behin ere eten.

Baina zuk musu hartatik eta mikaztasunetik ezpainak aldendu zenituen; deserri ilun batetik bestera deitu ninduzun. Esan zenidan: «berriz topo egingo dugun egunean, olibondoaren itzalpean, urdin eternalaren pean batuko gara musu batean, maitea».

Urrunean, zeroak urdin biziz dirdira egiten duen lekuau, olibondoak urari itzal egiten dion txokoan egiten duzu zure azken ametsa. Zure edertasuna, zure penak, hilkutxan daude bilduta – eta haien berriz topo egingo dugun eguneko musua... Oraindik zain nago; zorretan zaude...



“

Aberriaren eraikuntzako  
elementu zentral bat  
hildakoen artetik  
hautatutako batzuekin  
egiten den kontakizuna da

”

Puxkin aberriaz ari denean, Lauaxeta bezala, askatasunaren defentsa egiten ari da, baina bere aberria besteekin ere kokatzen ahalegintzen da:

#### ERRUSIAREN GAITZESLEEI

Zergatik zarata hau guztia, o hizlari herrikoiak,  
eta zergatik larritzen duzue zuen garrasiekin  
geure lurra?

Agian sugarretan zegoen Moskuren aurrean  
uko egin geniolako haren uztarriaren pean  
makurtzeari,  
dardara eragiten zizuenaren uztarriaren pean,  
amildegian, azkenean, bota genuena,  
herri osoak bere pisuz zapaltzen zuen idoloa,  
eta orduko geure odolarekin berriz erosi genituen  
askatasuna, ohorea eta Europarentzako bakea.

Hainbeste liskar ikusi ditugu ordutik;  
garaipenak ez zaizkigu berriak irudituko.  
Gutxiegi ote gara Perm-etik Toride-ra,  
eta Kremlineko hormak hauskorraak badira ere,  
noiz izango dira Txina lotiko harresia bezainbeste?  
Noiz altxatuko da, burdina bezala,  
herri handi hau, argitzen duen fedeak mugiturik?

Bidal ezazue, beraz, hona zuen izaer  
zuhurtziarik gabea,  
o zuek, hizlari garratzak, suminduak eta  
gaiztoak!  
Geure estepa amaigabeetan aurki ditzatela anaia  
zaharrak,  
behin ere geure zelaietan lokartuko ez direnak!




Kossikhan jaio zen Robert Ivanovitx Roidestvenski 1932an eta 1994an hil zen Moskun. 1976an Salduak olerkiak argitaratu zuen *Koloreen balada* liburuan. Kausa bat defendatzen dutenei sarritan neutraltasunaren nazionalistek akusazio hori egiten diete: literaturari idatzi beharrean kausari idazten diotela eta, beraz, asmo ilun horregatik, ez direla kontuan hartzeko moduko literatura bat egiten ari:

## SALDUAK

Sobietar idazle guztiak salduak dira.  
(Horrela idazten dute guri buruz Mendebaldean)  
Ni, egia da, salduta nago.  
Salduta.  
Erabat.  
Eta berez  
Zin degiet sobietologoei:  
«Galduta...»  
Kronstadt-eko izotz harroari salduta nago.  
Eta letoniar  
komandantearen azentuari.  
Salduta nago

gerra zibileko komisarioei  
eta berun koloreko urari.  
Eta salduta nago ere elur  
zuriegiari,  
eta Irtixa-ri  
eta gerra aurreko isiltasunari.  
Eta salduta nago  
berrogeita batean eroritakoen  
odolari,  
tanta bakoitzari.  
Azken tantara arte.  
Eta oraindik nago suteari salduta.  
Kasualki,  
karta joko batean bezala  
hamarreko bat batekoaren kontra.  
Bujar-ko kolore eskandaluzkora.  
Baku-ko tera.  
Eta CTZko lagun lasaiekiko salduta...  
Helikoptero bat  
erosi zidaten,  
eta gaua  
eta zabu egiten duen zelai  
batean atiko bat...!  
Orduan heldu zen nire emaztea.  
Eta erosи ninduen.  
Zerekin erosи  
zintuen?  
Oraindik ez dakit.  
Baina ordutik bizitza  
udaberriz udaberri hasi nintzen kontatzen.  
Gaurtik ez dut ikatzik egongo ez den unea itxaroten,  
baizik eta arabazozoa datorreneko...  
Alaba bat erosи zidan  
izaera gisabagea du,  
hori hala da,  
eta horretan ez dute zer ikusirik ez amak  
ez aitak...  
Rasul-i saldu nion neure burua  
labanan grabatu bat zeukan.

Angara-ko borborrera  
ere salduta.  
Salduta nago  
Palagi-ra  
eta Kizham-era.  
Ezagutzen dudan guztira.  
Eta zer ez ote dut nik ezagutzen...  
jaio berritan zen hitzari saldu nion neure burua,  
eta ez nuke bagatelengatik salduko ostera.  
Maiakovski-ri saldu nion neure burua,  
eta Svetlov-i,  
poesia benetakoa  
egiten den lurrari...  
Eta hau guztia oraindik ez daki inork...  
Salduta nago.  
Salduta nago  
nire gorputzkiekin.  
Eta horregatik da ezinezkoa  
ni erostea.





Roque Dalton da, oharkabean, maitasunaz eta iraultza sozialaz ari dela pentsatu arren, zeharka aberriaz sarritan aritzen den norbait. Ez dago argi hark zein aberriren alde egiten duten, ez bada maitasuna haren aberria:

#### PARAFRASIA

Bi aberri ditut nik:

Kuba  
eta nirea.

“

Bistan da, aberri  
batzuentzat, ala, zehatzago  
esanda, aberri batzuetako  
gehiengoentzat, aberria  
askatzeak mamua askatzea  
esan nahi duela

”

Hala dio Falta dena poeman:

#### FALTA DENA

...beste pertsona, pertsona gisa;  
beharra bihurtu da  
bestearentzat...

Marx

«Klasikoak interesgarriak dira»:  
nire atzoko blasfema Romeo eta Julieta ikustetik  
ateratzean.

Gaur entsaladarako tomate kuota igo dute  
eta zerba erraldoiak azaldu dira.

Ogia soberan dago, arrautzak nahikoak dira,  
arrozak eta babarrunek  
ur jauziek bezala aspertzen gaituzte.

Eskasiak gose mental apur bat ematen du  
eta beste gose handia, zioen atzo Flores lodikoteak.

Baina legatzarekin eta bi okel xerrarekin  
atzean utziko dugu astea.  
Kuban benetan falta dena  
zu zara.

Daltonenkin ezin da jakin aberria erabiltzen duen maitasunaz aritzeko, ala klaseaz aritzeko baliatzen duen maitasuna. Aurtengo maiatzaren 10ean berrogeita hamar urte bete ziren haren gerrillak hil zuela:

### HIRUGARREN MAITASUN POEMA

Zure maitasuna ohiz kanpoko egoera batean  
jaio denez  
ohiz kanpokoa dela esango dizute,  
esan iezaiezua preseski borrokan ari garela  
geurea bezalako maitasuna  
(borroka kideen arteko maitasuna)  
Salvadorko maitasun arrunt eta ohikoena  
izan dadin,  
ia bakarra.



Aberriak, estatu direnean, muga direnean, polizia direnean, armada eta errege, presidente eta ministro, aberri horiek mugak dauzkate. Poesiak ez du mugarik baina gaurko antologiak bai. Bainaz aurretik, aberriaren porrot eta eraikuntzak poesia ezagutu zueneko une gogoangarri bat ekarri nahi dut. 1945ean, naziek gidatutako Alemaniako militarki galdu zuenean Armada Gorriaren kontra, aliatuek okupatutako eremu hura bitan banatu zuten. 1949tik aurrera, bi estatu aleman egon ziren: mendebaldean, Alemaniako Errepublika Federala; eta ekialdean, Alemaniako Errepublika Demokratikoa<sup>1</sup>.

SEDEKO (Alemaniako Alderdi Sozialista Bateratuko) buruak Alemaniako ereserkia behar zutela jabetu ziren. Bertolt Brechtek uste zuen, mendebaldean zein ekialdean, Joseph Haydn-ek 1793an sortutako melodia bikaina gorde behar zutela. Abestiak hala zioen: «Jainkoak gorde beza Franz, Kaiserra, gure Franz Kaiser ona». Franz II.ari buruzko hitzak ziren, «Alemaniako Nazioaren Inperio Saindu Errromatarren» azken enperadorearenari buruzkoak. Haydnek idatzitako Kaiserraren laukotea garai guztiako kultura altxorra da. Bainaz Brechtek musika hari goitik behera aldatu zizkion hitzak, ez zuen Wilhelm Pieck konbentzitzeari lortu [orduko AEDko lehendakaria], ezta Otto Grotewohl [AEDko presidente] ezta Walter Ulbricht ere [alderdiko idazkari nagusia]. Denek nahiago izan zuten Johannes R. Becher-en testua zuena, «errautsetatik zutitu eta etorkizunera zuzendu», Hanns Eisler-en melodia batekin Brechtek ez zuen kalapita sortu nahi izan eta bere ideiari garrantzia kendu eta umeen ereserki gisa aurkeztu zuen, *Umeentzako kantak* sortan jaso zuen. Eislerrek melodia jarri zion, Haydnen soinuetatik urrun. Orduz geroztik ahanzturak jan zuen proposamena.

<sup>1</sup> Pasarte hau Wolfgang Harichek 1994an lagun artean eman zuen azalpen batean dago oinarritua.



Hala dio Bertolt Brechtek berez Alemaniako aberriari egin zion baina soilik haurrei abestu zaien abestiak:

#### UMEEN ERESERKIA

Graziak ez du ahaleginik aurrezten  
ezta pasioak ere elkar-ulertzea,  
Alemania on bat loratu dadila  
beste herrialdeak bezain ona.

Herriak ez daitezela zurbildu  
lapurraren aurrean bezala  
haien besoak zabal diezazkigutela  
geuri, baita beste herriei ere.

Geuk ez dugu beste herrien  
gainenik ez azpitik egon nahi  
Oderretik Rhinaren eskualdeetara,  
Albeetatik Iparraldeko itsasora.

Eta geure herrialdea hobetu nahi dugulako  
maite dugu eta babesten,  
atsegina iruditzen zaigu  
bestetzuei haien herria bezainbat.

Hori da, aitortzen dizuet, 2012an ezagutu nuenetik, nireen sentitzen dudan aberria, nireen sentitzen dudan ereserkia. Gauza lauso hori, akatsetatik ikasiz, norbereaz harro baina ez gainontzekoen gainetik jartzeko asmorik duen proiektua. Gure lehengusu Alain Urrutiarekin batera, hau da Euskal Herriarentzat egiten dugun proposamena: Alemania dioen tokian Euskal Herria jarrita, Oderretik Rhinaren eskualdeetara Brechtek jarri zuen tokian Aturritik Ebrora abestuta. Eta Haydenen melodiaren partez Hanns Eislerrenarekin. Zergatik? Gabriel Arestik Bertolt Brecht-en gorazarrez poeman hala esan zigulako:

[...]  
Eztezagun ahatz baina  
notizia berria,  
Hitlerena izan zela  
marxisten aberria.

Karlos eta Federiko  
bertan zirela jaio,  
eta biok etzirela  
diruaren lakaio.  
[...]

Trapagako Ugarten sinatu zuen Arestik poema hura, 1972ko apirilaren 26an. Apirilaren 26an bombardatu zuen, Spainiako aberriaren alde, Alemaniako abiazioak, Gernika. Ez dut uste, oro har, olerkiei data jartzen ez zien Aresti, efemerideekiko sentsibilitaterik gabeko poeta izango zenik.

Gaur irailaren 27a da eta gaurko egunez duela berrogeita hamar urte, 1975ean, Juan Paredes Manot *Txiki* eta Angel Otaegi ETA (pm)-ko militanteak eta Jose Luis Sanchez Bravo, Ramon García Sanz eta Humberto Baena fusilatu zituzten, Espainiako aberriaren alde.

Gauza jakina da Euskal Herria eta Spainia, aberri gisa, elkarren arerio, kontrario, ala etsaiak direla. Eta, beraz, aberri indartsuena pasa zela, hil zituela, *Txiki* eta Otaegi. Baino aberriaz ari garela, Frankismoan fusilatu zituzten azken beste hiru horiek, gaur inork, ez Euskal Herrian, baina are okerrago, ezta Spainian ere, gogoratuko ez zituenak FRAP erakundeko kideak ziren, alegia Frente Revolucionario Antifascista y Patriota taldekoak. Patriota. Zein da bere aberkideen gainetik pasatzen dena?

“

Kausa bat defendatzen  
dutenei sarritan  
neutraltasunaren  
nazionalistek akusazio hori  
egiten diete: literaturari  
idatzi beharrean kausari  
idazten diotela

”

Niri gaur, bereziki, Humberto Baena datorkit gogora, duela urte batzuk, Berria egunkariari Josu Zabaleta itzultziale handiak kontatu zion Carabanchelen preso zegoela nola erakutsi zion euskara Vigoko abertzale iraultzaileari. Humberto Baenaren Spainia abertzalean euskarak bazuen tokirik.

Akaso, Baenak eta urte berean hil zen Arrestik aberriaren mugak partekatzen zituzten, alegia:

## MUGAK



[...]

Ene euskalduntasunaren mugak hauk  
dira

Ifarrean:

Justizia

Hegoan:

Libertatea

Oestean:

gizonak bizitze bat edukitzea (astean bi  
egunetan jai eta urtean behin sabotnik)

Lestean:

Mutikoek (eta neskatzek) estudiatzeagatik  
alokairu sufizient bat irabaztea.

Eta muga hauk ez dituen euskalduna  
ez da euskaldun  
gizon ez delako.

[...]

Banuke Arrestiren dibisa honekin, ia armarri den poema honekin, bukatzea, baina uste dut antología honetan absentzia nabarmen bat egon dela; izan daitekeela gure etxeko liburuen bilduma mugatuaren eta herrenarengatik, ala izan daitekeela, aberriaz ari garela, aberriari kantatu dietenen profilarengatik, alegia generoarengatik.

Horregatik amaitu nahi nuke Maria Merce Marçalen dibisa ezagunarekin:

### **DIBISA**

Menturari hiru dohain zor dizkiot: emazte sortu izana,  
klase sozial apalekoa eta herrialde zapaldukoa.

Eta hiru bider errebelde izateko urdin uherra.

---

Artikulu honetan agertzen diren nazioarteko olerkarien poemak Hedoi Etxartek euskaratu ditu.


---





## Chus Pato

(Ourense, 1955). 1991tik 2023ra bitarte hamabi poema-liburu idatzi ditu, eta horiei esker hainbat sari jaso, hala nola Poesia Sari Nazionala, Losada Diéguez saria (bi aldiz), Premio da Irmandade do libro saria, Premio da crítica de poesía galega saria, Clara Campoamor saria eta Galiziako Kritikaren saria, Literatur sorkuntzaren atalean. Nabarmentzekoa da bere pentalogia *Decrúa, antes Método*, [Murritz (lehen, Metodoa)] zeinetan honako lan hauek biltzen baitira: *m-Talá, Charenton, Hordas de escritura* [Idazketa tropelak], *Secesión* [Sezesioa] eta *Carne de Leviatan* [Leviatanen haragia], bai eta bere azken liburua ere: *Sonora* [Soinudun]. Bere zazpi poema-liburu ingelesera itzuli ditu Erin Mourek, eta Britainia Handian, AEBn eta Kanadan kaleratu dira; beste batzuk, aldiz, beste herrialde batzuetan argitaratu dizkiote, hala nola Argentinan, Portugalen, Herbehereetan, Bulgarian eta Frantzian. Era berean, bere poema hautatu batzuk katalanera, euskarara, gaztelaniara, polonierara, arabiera klasikora, frantsesera, errumanierara, errusierara, eslovakierara, alemanera eta eslovenierara itzuli izan dira. Bere lana hamarnaka antologiatan bildu da —nazioarteko antologiak zein nazionalak—. Hainbat jaialditan parte hartu du: Amerikan, Europan, Afrikan eta Asian. 2015ean, Harvard unibertsitateko Woodberry Poetry Room bildumara gehitu zuten bere ahotsa. 2017ko irailaren 23an, Real Academia Galegako kide oso izendatu zuten. 2022an, *Carta abierta a Europa* [Gutun irekia Europari] eskutitza irakurri zuen Ptuj hirian. Ultramarinos argitaletxeak *Poesía reunida de Chus Pato* [Chus Patoren poesia bildua] kaleratu du —oraingoz, lau liburu dira—: proiektu horren barruan, Patoren obra gaztelaniara itzultzen ari da Gonzalo Hermo. Catasósek basotik gertu bizi da: hantxe daude Europako gaztainondorik garaienak.



### Sonora liburuko poemak

Urriarekin batera egiaztatu nuen  
kolibri-hegoen dardarizo gaindiezina.  
Azaroaren eta abenduaren arteko lerroan  
begien aurretik igaro zitzaidan martintxoriaren  
urdin magnetikoa  
greziarren altzione antzinakoa  
eta, zorionekoa ni, horrez gainera ikusi nuen  
nola banatzen zituen bitan errekastoaren urak  
abaila bizian.  
Atzo hontza ikusi nuen hegaldatzen  
hurbileko zuhaitz batetik  
beharbada urki bat  
hegan egiten zuen dotorezia-tul batek nola,  
zertxobait herabe  
iruditu zitzaidan Afrodita neukala parez pare.  
Izara bat leunduz ondoren lisaburdina pasatzeko  
jakin nuen bizi osoa ematen dugula,  
sehaskatik kobaraino, oihaletan bilduta  
azkenengo hatsa eterrean zabaltzen denean  
sareak hegaldatzen zaizkio inguruan  
lagun egiten diote bere bidean eta absoluzioan  
horregatixe ahal dugu pentsatu.  
Vallejok poema bat idatzi zuen piramideei  
buruzkoa 3 3 3  
ez da bertan hegaztirik ageri  
dio  
*es el tiempo este anuncio de gran zapatería  
de la muerte hacia la muerte  
eta hurrengo orrialdean  
el tiempo tiene un miedo ciempiés a los relojes.*  
Jainkosa baten aurrean gaudelarik  
eta hontza altxatzen delarik  
estaltzen gaituen zerua izarniatuta dago,  
atzerapenez dakusagu.  
Hiru, sugeak irakasten digu azala mudatzen  
Hiru, sugeak irakasten digu  
sagar bati hozka egitea dela diskurtsoaren legeak  
ulertzea  
Hiru, Adamek ezagutzen zituen zeinuak  
bere ahoan zirimolaka zebiltzan hutsik,  
denboraren zirimola-bukleak nola.  
Gure bizitza irudi bat da  
hegaldi zuri eta arina, laino trinkoa,  
gauaren ahala neurten dugu,  
horregatixe ahal dugu.

### Sonora liburuko poemak

No mes de outubro comprobei  
a vibración insuperable das ás dun colibrí.  
Na raia entre novembro e decembro  
cruzóuseme nos ollos o azul magnético do  
martiño peixeiro  
o antergo alción dos gregos  
e ainda tiven a fortuna de sentir  
como partía as augas do regato á maior das  
velocidades.  
Onte observei unha curuxa alzando o voo  
desde unha das árbores próximas  
se cadra unha abidueira  
voaba coma un tule de maxestade  
e algo tímda  
a sensación foi estar en presenza de Afrodita.  
Ao alisar unha saba para pasarlle o ferro  
souben que toda a nosa vida  
desde o berce á cova transcorre envolta en lenzos,  
cando o alento é o derradeiro e se expande no éter  
as teas voan ao seu redor  
acompañano na súa marcha e absolutión  
por esta razón podemos pensar.  
Vallejo escribiu un poema no que fala das pirámidas 3 3 3  
nel non hai comparecencia de aves  
lemos  
*es el tiempo este anuncio de gran zapatería  
de la muerte hacia la muerte  
ao pasar a páxina  
el tiempo tiene hun miedo ciempiés a los relojes.*  
O ceo que nos cobre  
cando estamos na presenza dunha deusa  
e asistimos ao alzarse da curuxa é callado de estrelas  
contemplámolo con retardo.  
Tres, a serpe apréndenos a mudar de pel  
Tres, a serpe apréndenos  
que morder unha mazá é comprender as leis do  
discurso  
Tres, Adán coñecía os signos  
na súa boca xiraban baleiros como xira en bucle o  
tempo.  
A nosa vida é unha imaxe  
o voo branco e lixeiro, as tebras mestas  
medimos a potencia da noite,  
por esta causa podemos.

## HEGOALDETIK, HEGOALDEKO ATETIK SARTUZ

(bi ahots mintzo dira: bata, poemari berari dagokiona, eta bestea, Maria Magdalenaarena. ez zaizkio elkarri mintzo, ez dute topo egiten, nork bere kautan edo inorentzat dihardu).

### *poemaren beraren ahotsa*

«alabastrozko edalontzi bat nahi zenuen  
aztiak ez zintuen ezagutu  
baina une hartan  
xaleko korapiloa askatu zenean  
eta zeure adats miragarria agerian geratu  
arrakala bat nabaritu zuen bere koroako harri  
batean

zeure izena, dorre bat  
zeure begiak  
inkonte-belarraren petalo

hegoaldean  
barkamenaren atetik irten-eta  
eskultoreak burezur bat altzoan irudikatu zintuen  
orobat esaten da zeure barnean bizi zirela  
emakume izeneko  
zazpi deabruak»

### *Maria Magdalenaren ahotsa*


«H.D.-k idatziz jaso zuen husten mintzaira  
heretikoan  
bidaia gisa pentsatu nuela berpizkundea  
ordainsari gisa  
abaraska gisa.  
M. Yourcenar-ek, baloien mintzairan,  
ohartarazi zuen  
ez nintzela neu izan lurringilearenera joan zena.  
Bere kontakizunaren arabera  
Marta bidali nuen  
berak erosi zion arabiarrari akara-su bat.  
Beste narrazio anonimo eta apokrifo batzuetan  
esaten denez  
Joan eta biok ezkondu egin ginen, bera  
jainkoarekin maiteminduta zegoen  
eta ezin izan ninduen esposatu eztei-gauean;  
horregatik, diotenez,  
errenditu nintzaion Errromako zenturioiari.  
Castillo Suarezek, Euskal Herriko mintzairan,  
honela amaitzen du  
nigan pentsatu gabe  
«maite dutenek bakarrik dakitelako /maitetasunik  
gabe bizitzen eta  
beti jarriko naiz iraun nahi duenaren alde. »

### *poemaren beraren ahotsa*

«gai izan zinen ikusteko argitasuna mugan  
amaieraren ederra  
bai eta hura maitatzeko ere

txoriek zugandik gertu-gertu egiten dute hegan  
batzuek, enarek, belarra doi-doi ukituz  
zeure belaunen parean.

Tximino ama, babes gaitzazu paradisutik  
Tximino ama, salba gaitzazu patriarkatutik  
zerorrek, baitzara aurreko eta ostekoa eta  
arkaikoa  
gorde gaitzazu gizatiarretik».



## DESDE O SUR, ENTRANDO POLA PORTA SUR

(falán dúas voces: unha, que é a propia do poema, e outra que é a de María Magdalena. non falan entre elas, non se encontran, cadaquén fala para si ou para ninguén)

*voz propia do poema*

«ti querías un vaso de alabastro  
o mago non te reconeceu  
pero no intre aquel  
no que se desatou o nó do chal  
e se descubriu o esplendor dos teus cabelos  
sentiu a fenda nunha das pedras da coroa

o teu nome era unha torre  
os teus ollos  
os pétalos da pervinca

no sur  
saíndo pola porta do perdón  
o escultor representoute cunha caveira no colo  
tamén din que dentro che vivían os sete demos  
que teñen nome de muller»

*voz de María Magdalena*

«H.D. consignou na lingua herética dos husitas  
que pensei a resurrección coma un traxecto  
coma unha remuneración  
coma un panal.  
M. Yourcenar, na fala dos valóns, advertiu  
que non fun eu quen visitou o perfumista.  
Seguindo o seu relato  
envieia a Marta  
foi ela quen lle mercou ao árabe un lume de  
nardo.

Noutras narracións anónimas e apócrifas afírmase que

Xoán e mais eu casamos, il estaba namorado de deus  
e non puido desposarme na noite de vodas;  
esa, sosteñen,  
foi a razón pola que me entreguei ao centurión de Roma.

Castillo Suarez, no idioma de Euskal Herria, conclúe sen pensar en min

«*porque só os que amamos sabemos /vivir sen amor e sempre seguirei a aquel que queira permanecer»*

*voz propia do poema*

«fuches quen de ver a claridade no límite  
a beleza da fin  
e amala

os paxaros góanche moi preto  
algúns, andoriñas, rasan a herba  
á altura dos teus xeonllos.

Madre simia, protéxenos do paraíso  
madre simia, sálvanos do patriarcado  
ti que es anterior e posterior e arcaica  
protéxenos do humano»

---

Itzulpenak: Danele Sarriugarte

---



## Miriam Reyes

Ourenseñ jaio zen (Galizia), eta, zortzi urte zituela, Caracasera joan zen bizitzera gurasoekin. 2001ean, *Espejo negro* [Ispilu beltza, DVD] argitaratu zuen. Bere bigarren poema-liburuari esker, *Bella durmiente* [Loti ederra], Hiperión sariaren finalista izan zen. Ondoren, honako liburu hauek argitaratu zituen: *Desalojos* (Hiperión, 2008) [Etxegabetzeak], *Haz lo que te digo* (Bartleby, 2015) [Egizu nik diodana], *Prensado en frío* (Malasangre, 2016) [Hotzeten prentsa] eta *Sardiña* (Chan da pólvora, 2018) [Sardina]; liburu bakar batean bilduta daude denak: *Extraña manera de estar viva* (Mixtura, 2022) [Bizirik egoteko bai modu bitxia]. Bere azken liburua hau da: *Con* (La Bella Varsovia, 2024) [Harekin].

Bere obra hainbat antologiatan bildu da —antología nazionalak zein nazioartekoak—, eta dozena erditik gora hizkuntzatara itzuli dute.

2001. urteaz geroztik, ikus-entzunezko idazketa eta errezial multimediac lantzen ditu. Bere bideo-errezialak, hain zuzen, poesia, *spoken word* eta arte eszenikoetako jaialdietan aurkeztu ditu.

Gaur egun, Bartzelonan bizi da.

## **Sardiña (Chan da pólvora, 2018)**

ez dut ikasi nahi gauzei beren izenez deitzen  
hizkuntza honetan  
deitu nahi diet beren esanahiz

---

gurutzatzea ez zen izan adierazten den horren  
elkartruke  
ondoz ondoko bat  
ez zen izan bide beretik jarraitza kontrako  
norabidetan  
eta ez ziren izan bide paraleloak  
bideek ez zuten geometriarik.  
ez nuen inorekin gurutzatu mezurik, hitzik,  
irainik, oparirik.  
gurutzatu nuen ozeanoa eta lur hartu nuen  
gauaren erdian

inongo alderik ez etxearen eta ehizearen artean

---

## **Del libro Sardiña (Chan da pólvora, 2018)**

non quero aprender a chamar as cousas polo seu nome

nesta lingua  
quero chamalas polo seu significado

---

cruzar non foi un intercambio sucesivo daquilo que  
se expresa  
non foi seguir polo mesmo camiño en sentidos  
opostos  
nin foron camiños paralelos  
os camiños non seguían xeometría.  
non crucei mensaxes, palabras, insultos, regalos.  
crucei un océano e aterrei  
no medio da noite

ningunha diferenza entre casa e caza



harako gizon hark sardinilla deitzen zidan aldiro  
nik zugan pentsatzen nuen / zure grinan

nola hartzen zenituen sardinak eskuekin

gorputz txikia airean hedatuta  
eta mutur bakoitzean zure hatzen pintza

musuka jaten zenituen  
bizkarrezurra distiratan utzi arte

gizon hura ez zen nor  
oraindik ez dut ezagutu nor den inor

---

nioen historia honen muinean dagoela zaitasuna  
zure gorputzaren materiak atseden hartzen du  
neurearen barruan pentsamendu batek nola  
eta zu egon zaitezke nahinon:  
zuhaitz batean haitz batean hodei batean  
—jakina—  
baina baita beste gorputz batzuetan ere, eta  
edozein kaletan  
ez dakit beharrezkoa den azalpenik gehitzea

cada vez que o home aquel me chamaba sardinilla  
eu pensaba en ti / na túa paixón

como collías as sardiñas coas mans

o pequeno corpo estendido no ar  
e en cada extremidade a pinza dos teus dedos

comíalas a bicos  
ata deixar o esqueleto esplendente

o home aquel no era quen  
ainda non coñecín quen o fose

---

dicía que a dificultade é parte desta historia  
a materia do teu corpo descansa no interior  
do meu corpo coma un pensamento  
e ti podes estar en todas as partes:  
nunha árbore nunha rocha nunha nube  
—por suposto—  
mais tamén noutros corpos e nunha rúa calquera  
non sei se cómpre engadir explicacions

ez nago erotuta  
ez naiz hildako batekin ari  
ari naiz gizon batekin zeina  
nire barruan bizi baita bizi

---

gauza asko pasa dira zure hezurrak utzi zituztenetik  
harako kaxa hartan:  
lehenik eta behin pasa zen denbora  
iraungi zen kaxa gorde zuten hobien alokairua  
zure emazteak jaso zuen, eta auzokide baten  
panteoira eraman

hainbeste denbora pasa zen, distantzia fisikoa  
baitzirudien

joan izan bazina bezala estratosferara  
kosta zitzaidan ohartzea, baina ohartu nintzen  
neure gorputza da alokatu beharrik ez duzun  
hobia  
begiraidazu / begira nigana  
sardinak ditut ezpainen  
osterak itsasertzean zuretzat

---

nora:

helmuga distantzia

nora:

modua

sardinak plantxan  
neskato bat altzoan

---

ez dut ate bat itxi nahi  
eta beste aldean gera zaitezen zu

izan bedi kaxa toraziko hau  
santutegi edo armairu txiki

bihur bitez zeharrargi haragia eta azala  
eta zure presentzia ez dadila izan

zalantzarako motibo ezpada  
sugar bat, nire bularrean piztuta

non estou tola  
non estou a falar cun morto  
falo cun home que vive  
intensamente en min

---

pasaron moitas cousas dende que deixaron os teus  
osiños na caixa aquela:  
o primeiro que pasou foi o tempo  
venceu o aluguer da cavidade onde gardaron a caixa  
a túa muller colleuna e levouna ao panteón dunha  
veciña

pasou tanto tempo que parecía distancia física

coma se marcharas além da estratosfera  
tardei en decatarme mais decateime  
o meu corpo é a cavidade que non precisas alugar  
óllame / olla pra min  
teño sardiñas nos beizos  
paseos á beira do mar para ti

---

a:

destino distancia

a:

modo

sardinhas á prancha  
rapaciña ao colo

---

non quero pechar unha porta  
e que do outro lado quedes ti

fágase desta caixa torácica  
sagrario ou armario pequeno

tórnense translúcidas a carne e a pel  
e que a túa presenza non sexa

motivo de dúbida senón  
lámpada acesa no peito

ezkataren eta hezurraren artean  
zeure haragia, zain oraindik  
irakurgarritasunaren garaia ea noiz

izan daiteke dardara egitea edo geldi-geldirik  
egotea ni  
zeure baimenaren zain

eskaintzen dizudan bizitza z ardatzean gertatzen da

hilabete hotzeten, egotearen erdigunean  
gona-mahai bat posible da  
lihazkien ukipena  
agerian dagoen azal-zerrendan  
hanken flexio arina dela-eta  
oinak sartzean edo ateratzean  
mahaiaren gonaren azpian gogoan du  
azal-zerrendak gogoan du

ez du pentsatu nahi fikzio bat eraikitzen ari al den  
gurea guri buruzkoa

entre a escama e a espiña  
a túa carne ainda a agardar  
a hora da lexibilidade

pode ser que treme ou permaneza moi quieta eu  
a agardar o teu consentimento

a vida que che ofrezo acontece no eixo z

nos meses de frío no centro do estar  
unha mesa camilla mesa camilla é posible  
o tacto dos flocos  
na franxa da pel exposta  
pola lixeira flexión das pernas  
ao introducires ou extraeres ós pés  
baixo a saia da mesa lembra  
a franxa de pel lembra

non quiere pensar se está a construir ficción de noso  
de nós



---

Itzulpenak: Danele Sarriugarte

---

# lerroak

## AITA-SEME SINPATIKOAK

Hain gara sinpatikoak XXI. mendeko aitok.  
Adin batetik gorako emakumeen begietara batez ere;  
baina ez bakarrik.  
Haur txikiiek jostatzen garenean batez ere;  
baina ez bakarrik.  
Seme-alaba nerabeak besarkatzen ditugunean batez ere;  
baina ez bakarrik.  
Eta, sinpatikoak garelako, hain gara baldarrak.



Hain gara sinpatikoak XXI. mendeko semeok.  
Bizirik dauden beste ama batzuen begietara batez ere;  
baina ez bakarrik.  
Aulkia gurpildunak bultzatzen ditugunean batez ere;  
baina ez bakarrik.  
Guraso zahartuak besarkatzen ditugunean batez ere;  
baina ez bakarrik.  
Eta, sinpatikoak garelako, hain gara traketsak.

Edu Zelaieta Anta



Ane Labaka

## POZ TXIKI BAT

Hurreratu naiz mantapean  
harik eta bi-bion aurpegiak  
parez pare izan arte  
eta, hara non, bete zaizkizun  
masailak bizitzaz.

Bare urratu duzu egunsentia.

Diotenez,  
hasierako irriak bi motatakoak izan daitezke:  
erreflexuzkoak edo sozialak.

Utzidazu nahita egin duzula pentsatzen.



Rakel Pardo

### EX NIHILO

Igandeko mezatik ateratzen ari da, dotoretasun fina fedearekin bat, arnasaldi metodiko eta arrotza, behaztopa egiteko libertatea. Fede itsuak fedea irensten du, instintiboki xehatzen du, zerukoari ahuspeztu zitzzion biharkoa haritzeko.

Hainbat lihoren artean hauteman daiteke kontrakoz jarritako zentzua.

Lihoa zure antologiak dira. Ex nihilo.



Zuhaitz biluzietako mihura  
Teilatuetara igo,  
eta hegoak erantziz,  
jauzi egingo dut zurekin,  
jakin nahi baitut nora zoazen,  
zer oroitzapen duzun  
berbok entzuten.  
Hitzok helbururik gabeko bidaia-txartela dira,  
noraezerako gonbidapena.  
Itzulerarik ez duen bidatza,  
zure oroimenek eta nireek  
bat egiten duten tokira.  
Lanbroan sartuta,  
lastargiak jarraituko ditugu,  
bidea eta norantza asmatuz.  
Aldiro jomuga aldatzen bazaizu  
ez kezkatu, aurrera jarraitu,  
soilik altzifreen bidea saihestu.  
Hitzok begiralerik gabeko ostera dira,  
oin-puntetan eginiko txangoa.  
Katea moztutako aingura,  
esan gabeko hitzen bilkura,  
zuhaitz biluzietako mihura.



Iker Aranberri



**Leire Vargas**

### IRAKURKETAK

Galdetzen duzue zergatik  
bilatzen ote dugun, aseezin  
litekeena baino ez denaren loratzetan

izpiliku-lainoak, piratak eta ostargiak

ertzak biribil perfektu batean  
zalantzak porlanezko murruetan.

Besterik helduko ez zaigula jakitun  
azpitestuz eta angelu itsuz elikatzen gara

batzuk hemen bizi izan gara beti  
ikusi nahi ez duzuen lekuau.

Eta argazkia atxikita!  
Beste ezer behar izanez gero, bota!



### **Ez zaitut behar beste zaindu**

ez zaitut merezi bezala jagon  
eman zenidan horrenbesterekin  
banizun nola  
mamitu maitasuna  
astia banizukeen  
eta niretzat gorde dut ikasi nizuna  
niretzat zure denbora guztia  
zuretzat  
ezta hondarrik ere



**Gotzon Barandiaran**



## Txomin Heguy

### URKITZ LOREEN BARATZA

luna dator mendebaletik ekialdetik triskantza  
Destorbu aro bereizkeria herra eta mesfidantza  
Munduak ez du eraiki nahi bizirako aliantza  
Murritzen ari da lur honetan gerorako esperantza.

Atzo Gernikan, atzo Beiruten, gaur Gaza  
herrialdean  
Bonbak erortzen zeru gainetik norberaren  
sukaldean  
Ez da nabari argi izipirik bakearen goizaldean  
Jourdain ibaiak odola dakar promesaren  
Lurraldean.

Auzo umeak dituelarik Israelek akabatzen  
Populu oso baten habia sutanpakaz porroskatzen  
Zer etorkizun bere haurreri funtsez du  
irudikatzen  
Juduek jasan holokaustoa ote du hola artatzen.

Eguberria ez da jautsiko Ekialde Hurbilera  
Jainkorik ez da bertaratuko geroko argitzera  
Gizakiak du jendetasuna eramanen gorenera  
Edo iñoz ez gara helduko urkitz loreen baratzera.

*Lorratzak*  
Maiatz argitaletxea. 2024.

### LILI GORRIAK

lili gorriak  
utzi dizkiot  
berak ez daki  
nork utzi dizkion,  
nola jakingo luke?

lili gorriak  
ontzi muxkilan  
argi bizian  
nola biziko dira  
udazken haizeetan?

lili gorriak  
bizi motzean  
egunak labur  
hotzaren beldurrez  
jendea uzkurrago

lili gorrien  
ezpal hostoak  
minberegiak  
azaro ilunez  
zimurtuz erortzean.

lili gorriak  
utzi nizkion  
ez badaki ere  
gabe direnentzat  
utzi nizkien ere.



## Luzien Etxezaharreta

**Formol taldea**



**Esther Gabiola**



**Toki**



**Nabil**



**Eider Beobide**

**Xalba Ramirez**

**Peru Galbete**



**Sonia Rueda**

#### **Hitz politetatik autorretratura**

Orrialde hauetako kontakizuna osatzen duten irudiek hitz politak eta hitz polit gehiago argitalpenetan dute jatorria. Bietan jaso nituen euskarazko hitzak, eta horientzako irudiak asmatu. Arian-arian, datu autobiografikoekin presentzia handituz joan zen sorkuntza-prozesuan zehar.


Alde batetik, neure irudia zentzumenen bidez ikertzea behin eta berriz errepikatzen da nire lan plastikoan zehar. Beste alde batetik, irudiak nire doluaren lanketa bihurtu dira, baita etorkizunari begira jartzeko modu bat ere.

Aldizkari honetan aurkezten ditudan irudietan, mina-trantsizioa-birjaiotza ibilbidea eratzen dute eta autorretratuuan oinarritutako proiektu berri baten abiapuntua dira.

---

Sonia Rueda (Bilbo, 1964) Arte Ederretan lizentziaduna da. Banakako hogeita hamar erakusketatik gora egin ditu. Talde-erakusketa askotan ere parte hartu du (140tik gora).

@sonia\_rueda



ANTOLATZAILEA:



**EUSKALTZAINDIA**  
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA  
ACADEMIE DE LA LANGUE BASQUE

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:

